

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2025ean Donemiliagako udalerrian kontzejuek egiten dituzten jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteko gastuak finantzatzeko udal laguntzen deialdia jasotzen duen Donemiliagako Udalbatzaren 2025eko otsailaren 17ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 817876.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/817876>.

Deialdiaren xedea

2025ean Donemiliagako udalerriko herrietan egiten diren jaiak eta gizarte eta kultura jarduerak antolatu eta egiteak eragindako gastuak finantzatzea.

Diruz lagundu ahal izango dira jai egitarauko jarduerak, Donemiliagako udalerrietan egiten direnak, eta kultura, jolas, jai eta kirol ekitaldiak, bai eta jai jarduerak zabaltzeko kartelak ere.

Jarduerak herrikoiak izan beharko dira. Herriar guztientzako izan beharko dira, oro har, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu behar dute.

Trofeoak (txapelak, kopak, urdaiazpikoak, gaztak, hainbat sustapen-objektu...) eta haurrentzako tailerrak egiteko materialak eta abar erosteko, haien kostuaren ehuneko 50eko dirulaguntza emango da.

Diruz lagunduko dira, halaber, agertokiak alokatzeak eragindako gastuak, programatutako jarduerak egiteko halakoa beharrezkoa dela egiaztatzen duten herrietan eta herriok hala eskatu ondoren.

Salbuetsita geratzen dira otorduen, lunchen eta antzekoen gastuak, bai eta elikagaien gastuak ere, hala nola gozoki, edari eta bestelakoak.

Ez dira diruz lagunduko sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duen jarduerarik.

Onuradunak

Donemiliagako udalerriko kontzejuek edo batzorde antolatzaileek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta kideen onarpen prozesuan edo funtzionamenduan sexua dela eta bereizkeriarik egiten ez badute.

Kontzejua oniritzia izan beharko dute 2025ean zehar kultura ekintzak eta ospakizunak antolatzen dituzten batzorde antolatzaileek.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak 2025eko aurrekontu orokorreko 334.434.000 aplikazioko partidaren kredituari (9.162,00 euroz hornitua) eta 338.434.000 partidarenari (14.761,00 euroz hornitua) egotziko zaizkio.

Kontzeju bakoitzak, gehienez ere, 1.300,00 euroko dirulaguntza jasoko du, eskatutako jarduera kopurua eta eskatzaile kopurua zein diren gorabehera, eta udalaren aurrekontu aplikazioaren muga (18.000,00 euro) kontuan hartuta. Onetsitako aurrekontu aplikazioa eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, hura handitu ezean, gehieneko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

Agertokiak alokatzeko, kontzeju guztien artean, gehienez 4.500,00 euro emango dira dirulaguntzetan. Kontzeju bakoitzari dagokion zenbatekoa aurkeztutako eta onartutako eskaeren araberakoa izango da.

Eskaerak ebatzi ondoren kreditu erabilgarriak badago, kontzejuei eman ahal izango zaie jailetako jardueretarako orkestrak kontratatzeko gastuak ordaintzeko, betiere kontratazioaren zenbatekoa 2.000,00 eurotik gorakoa bada. Gehieneko zenbatekoa, aurrekontu aplikazioan dagoen kreditu erabilgarria kontuan izanik, 1.250,00 euro izango da. Eta beraz, gehienez ere 1.300,00 euroko hasierako dirulaguntza ezin izango da 2.550,00 euro baino handiagoa izan.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta eskatzaileek aurkezten dituzten jarduera memorietan eta ekonomia arloko memorietan eta udalaren aurrekontu partidan oinarrituta xedatuko dira.

Eskaerak aurkezteko epea

Herri guztiek eskaerak aurkezteko duten epea 2025eko abenduaren 12an bukatuko da.

Salbuespen gisa, 2025eko abenduaren 14tik 31ra bitartean gastuak egiten badira, egiaztagiria aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 7ra arte luzatuko da. Halakoetan, abenduaren 13a baino lehen, Donemiliagako Udalean aurkeztu beharko da kasuan kasuko eskaera, gastu xedapena ezagutze aldera.

Eskaera batek ez baditu adierazitako baldintzak betetzen, Donemiliagako Udalak interesdunari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. 2026ko urtarrilaren 7ra arte izango du horretarako epea.

Erdoña, 2025eko martxoaren 3a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO